

2018KO UZTAILAREN 25EAN GOBERNU BATZARRAK EGINDAKO OHIKO BILERAREN AKTA

LEKUA: Beasaingo Udaletxea.

ARETOA: Batzar Aretoa.

EGUNA: Hogeita bosta.

HILABETEA: Uztaila.

URTEA: Bi mila eta hemezortzia.

HASIERAKO ORDUA: Eguerdiko ordubiak eta erdi

BATZARRALDIAREN IZAERA: Ohikoa

DEIALDIA: Lehena

OSATZEN DUTEN PARTAIDEEN KOPURUA: Sei (6)

MAHAIBURUA: Aitor Aldasoro Iturbe.

BILDUAK: Leire Artola Ugalde

Malu Valles Fernandez

Koldo Agirre Mujika

Miren Amaia Barandiaran Vélez de Mendizabal

Santiago Urdampilleta Dos Santos

IDAZKARIA: Itziar Arostegi Apaolaza

1.- AURREKO AKTA. 2018-06-28ko akta onartzea.

2018-06-28ko aktaren berri eman ondoren, aho batez onartu da berarekiko zer esanik ez dagoelako.

2.- LURRALDE BATZORDEKO PROPOSAMENAK:

- Zapatari, Martin Aramburu eta Garmendia Otaola kaleetako obrei buruzko 1. Ziurtagiria.

Aho batez onartu da, “**Zapatari-Martin Aranburu eta Garmendia Otaola kaleak berrurbanizatzeko**” obrei buruzko obren 1. ziurtagiria, **107.933,95 €**koa (BEZ barne).

- Beasaingo udalerriko parke, lorategi, guner berde eta zuhaitzen mantentze-zerbitzuari buruzko kontratua luzatzea.

Ondorengo proposamenaren berri eman da:

“Beasaingo udalerriko parke, lorategi, guner berde eta zuhaitzen mantentze-zerbitzuari dagokion kontratua luzapenari buruzko txostena

2018ko irailaren 1ean amaitzen da 3 urteko iraupenarekin GUREAK BERDEA, S.L.U. enpresak eta Beasaingo Udalaren artean udalerriko parke, lorategi, guner berde eta zuhaitzen mantentze-zerbitzua eskaintzeko sinatutako kontratua.

Plegu Administratiboko 3.atalak “KONTRATUAREN IRAUPENA”, dio: Kontratuaren iraupena 3 urtekoa izango da. Epe hori URTE BATEKO 3 epealditan luza daiteke, betiere, espresuki eta elkarren artean adosten bada. Edozein kasutan, kontratuaren guztizko iraupena, gehienez, 6 urtekoa izango da.

Kontuan izanik merkatuan baldintza nabarmen hobeak aurreikusarazten dizkigun aldaketarik ez dagoela, eta enpresak eskaintzen digun zerbitzuarekin konforme gaudela,

Proposatzen da:

Beasaingo udalerriko parke, lorategi, guner berde eta zuhaitzen mantentze-zerbitzuaren kontratua urte betez luzatzea, hau da, 2018ko irailaren 2tik 2019ko irailaren 1erarte. Luzapena orain dagoen kontratuaren baldintza berdinetan ematen da, prezioa barne.”

Bozketa eginda, aho batez onartu da proposamena.

4.- ESKAERA ETA GALDERAK

Eskaera eta galderen atalean ez da inolakorik aurkeztu.

Eta tratatzeko besterik ezean, bilera eguerdiko hirurak laurden gutxiagotan amaitu da eta nik, idazkari naizen honek akta hau sinatu eta idatzi dut.